



Arartekoaren 2013ko azaroaren 7ko ebazpena. Horren bidez, jendeari zabaldutako establezimendu pribatu batean onarpen-eskubidea gehiegikeriaz eta diskriminazioz erabili izanaren ondorioz pertsona batek jarritako erreklamazioaren aurrean Gasteizko Udalak egindako jarduera salatzen duen kexa-espeditentea amaitutzat ematen da.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean Gasteizko disko-pub batean onarpen-eskubidea gehiegikeriaz eta diskriminazioz aplikatu izanaren ondoriozko kexa baten aurrean Gasteizko Udalak izan zuen jarduerarekin ados ez zegoelako. Jakinarazi zigunez, 2012ko ekainaren 24an aipatutako lokaleko atezainek ez zioten sartzen utzi beltza zelako. Arrazoia horixe izan zela egiazta dezaketen lekukoak omen ditu. Gaineratu zuen ez zela jarrera hori jasaten zuen lehen aldia izan; aitzitik, gero eta gehiagotan errepikatzen omen den arazoa dela jakinarazi zigun, eta ez bakarrik lokal horretan, baizik eta hiriko beste hainbatetan ere.
2. Erakunde honek gaiaren inguruko informazioa eskatu zion aurreko Herrizaingo Sailari, haren mendeko Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara igorri baitzen gertakari honen inguruan kexagileak aurkeztu zuen erreklamazio-orria. Sail horrek honakoa erantzun zigun: *"con fecha 2 de julio de 2012 se remitió la presente reclamación al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, por tratarse de una reclamación en relación con un local cuyo aforo es menor de 700 personas, por lo cual la competencia para su tramitación es del Ayuntamiento correspondiente, de conformidad con lo establecido en la Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas"*.
3. Orduan Gasteizko Udalera jo genuen, eta kexaren izapideari buruzko informazioa eskatu genion. Horrez gain erakunde honen aburuz hizpide dugun espeditentea behar bezala izapidetu ahal izateko kontuan hartu beharko lirartekeen zenbait gogoeta juridiko ere helarazi genizkion.

2013ko urtarrilaren 11n Gasteizko Udalak erantzuna igorri zigun, eta jakinarazi zigun 2012ko urriaren 5ean gertakari horien inguruko zehapen-espeditentea ireki zuela. Adierazi zigun espeditentea instrukzio-fasean zegoela eta Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren arloko zinegotzi delegatuak prozeduraren ebazpena ematerakoan jakinaraziko zuela haren edukiari buruzko informazioa.



4. 2013ko ekainaren 27an oraindik berririk jaso ez genuenez, laguntza-eskaera berretsi genion Udalari. Aldi hartan, zehapen-espediterearen izapideei buruzko informazioa eta, bidezkoa izanez gero, hari buruzko ebazpenaren kopia ere eskatu genizkion, eta hizpide dugun gaiaren inguruan administrazio publikoan jardura hobetzeko xedez egun hartan bertan erakunde honek emandako Gomendio Orokorra ere helarazi genion (Arartekoaren 6/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 27koa).
5. Irailaren 16an erantzun zigun Udalak, eta aipatutako espediterearen inguruan 2013ko martxoaren 1ean emandako Ebazpen Dekretua helarazi zigun.

Haren edukiaren arabera, espediterea zabaldu ondoren, 2012ko azaroaren 9an alegazioak aurkeztu zituen salatutako lokalaren jabea den enpresak. Alegazioetan azaldutakoaren arabera, kexagileari sartzen ez uzteko arrazoia ez zen haren azal-kolorea izan, modu txarrean eta oldarkor jokatu izana eta alkoholdun edarien edo/eta substantzia psicotropikoen eraginaren menpe egon izana baizik. Hala jokatzeko omen dute guztiekin, eta dantzalekuan arraza, sexu eta adin guztietako bezeroak egon omen dira beti, inolako diskriminaziorik gabe.

Azaroaren 13an izapidegileak kexagileari helarazi zizkion alegaziook horien aurrean erantzun zezan, eta bost eguneko epea eman zion frogak aurkezteko. Kexagileak adierazi zuen enpresa salatuak alegatutakoa gezurra zela, berak ez zuela jokabide txar edo oldarkorrik erakutsi eta ez zegoela mozkor (musulmana denez ez omen du alkoholik edaten) ezta inolako substantzien eraginpean ere. Gertakaria jazo zenean kexagileak hala eskatuta Udaltzaingoa bertaratu zen dantzalekura, beraz, haien jardura jaso zuen argiketa edo oharrak proposatu zituen hori guztia frogatu ahal izateko bide gisa, eta baita gertatutakoa ikusi zuten hainbat lekukoren testigantza ere.

2013ko urtarrilaren 8ko eginbidearen bidez, salatutako gertakariaren inguruan 2012ko ekainaren 25ean gauzatutako jarduerari buruzko txostena aurkezteko eskatu zien izapidegileak egun hartan jardun zuten udaltzainei. Udaltzainek 2013ko urtarrilaren 11n eman zuten txostena, eta honakoa adierazi zuten bertan:

"...fueron requeridos para que se dirigieran a la discoteca (...) ya que, al parecer, un cliente deseaba rellenar una hoja de reclamaciones y no se la facilitaban. Personados en el lugar, la patrulla se entrevistó con el demandante (...). Esta persona manifestó a los agentes textualmente que al ir a entrar en la discoteca no le fue permitido el acceso por el color de su piel, por ser negro. El demandante iba acompañado de una amiga, a la cual se identificó como (...). La acompañante también insistió en que no le habían dejado entrar por el color de su piel. La patrulla se entrevistó a



continuación con un responsable de seguridad de la discoteca, el cual fue identificado como (...). Esta persona manifestó que en ningún momento se le prohibió el acceso a la discoteca por el color de su piel sino que mostró una actitud agresiva para querer entrar al recinto y que entre sus clientes había gente de color y no había tenido ningún problema. Con ayuda de la patrulla se rellenó la correspondiente hoja de reclamaciones con las manifestaciones de ambas partes y se les informó de los pasos a seguir."

6. Prozedura ebatzi zuen dekretuak honakoa adierazten du:

"5) Vistos los citados antecedentes y especialmente el contenido del informe emitido por los agentes de Policía Local actuantes, cabe realizar las conclusiones siguientes:

- Los agentes actuantes no son testigos de los hechos que originan el expediente, sino que llegan al lugar a posteriori, una vez sucedidos los mismos.

- Los agentes actuantes recogen la versión de los hechos que les transmiten las partes:

Por un lado la del denunciante (...)y otros testigos acompañantes, entre ellos (...), que transmiten una misma versión de lo acaecido.

Por otro lado la de los porteros y personal de la discoteca, que discrepa de la versión del denunciante dando una versión diametralmente opuesta.

- Por lo expresado, atendiendo al contenido del informe Policial, el instructor no considera necesario la apertura de la prueba testifical propuesta ya que las versiones de las partes y testigos constan fehacientemente en el referido informe y, por lo tanto en el expediente, no existiendo duda alguna acerca de las mismas.

6) Con relación a los hechos citados debe recordarse que el artículo 137 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, además de incluir entre los principios generales del procedimiento sancionador el referido a la garantía de respeto a la presunción de no existencia de responsabilidad administrativa mientras no se demuestre lo contrario, dota de valor probatorio a los hechos constatados por funcionarios a los que se reconoce la condición de autoridad y que se formalicen en documento público observando los requisitos legales pertinentes; ello sin perjuicio del valor y la fuerza probatoria que pueda darse a las pruebas que señalen o aporten las propias personas expedientadas en defensa de sus intereses.

*De acuerdo con esta legislación, el derecho de presunción de inocencia aplicable al procedimiento para la imposición de sanciones administrativas, no exonera a la persona imputada de la carga de probar en su descargo, sino que, de manera distinta, garantiza que **el procedimiento sancionador, como señala el Tribunal Constitucional (Sentencia 76/1990, de 26 .de abril), está condicionado por el artículo 24.2 de la Constitución,***

a la aportación de prueba de cargo suficiente. A este efecto, el derecho a la presunción de inocencia comporta "que la sanción esté basada en actos o medios probatorios de cargo o incriminadores de la conducta reprochada, y que cualquier insuficiencia en el resultado de las pruebas practicadas, libremente valorado por el órgano sancionador, debe traducirse en un pronunciamiento absolutorio.

El informe (13-00021) de 11 de enero de 2013, emitido por los Agentes de Policía Local intervinientes refleja como éstos se personan en el lugar una vez sucedidos los hechos; esto es el propio informe constata que los agentes no fueron testigos de ocurrido, pudiendo únicamente recabar las diferentes versiones de las partes implicadas a posteriori; por lo tanto, este informe no resulta determinante ni constituye prueba de cargo suficiente para concretar matizar o modular el principio de presunción de inocencia, derecho fundamental, que debe presidir la tramitación de los expedientes sancionadores.

Por lo que respecta a las contradictorias versiones de lo ocurrido que manifiestan por un lado, el propio (...)y acompañantes, entre ellos (...), y por otro, el personal relacionado con la discoteca, no hace más que poner de manifiesto la duda más que (sic) razonable sobre los hechos, debiendo indicarse que a ninguna. de las versiones puede considerarse preponderante o con mayor valor probatorio que la otra, por lo que a tenor de lo expresado, cabe concluir que no existe prueba de cargo suficiente, esto es, de prueba valorable como tal, de la que llegue a deducirse la responsabilidad de la empresa inicialmente inculpada.

En base a lo expresado se propone la estimación de las alegaciones presentadas decretando el archivo del expediente) por la inexistencia de prueba de cargo suficiente que acredite su responsabilidad."

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Dekretuak salatutako dantzalekuaren titularra den enpresaren alegazioak onartzea ebatzi zuen eta hasitako espedientea artxibatzeko agindu zuen, ez baitago enpresaren erantzukizuna behar bezala frogatzen duen egozketa-frogarik. Udalak jakinarazi digunez, ebazpena alderdi biei jakinarazi ondoren inork ez zuen hemen aipatu dugun Dekretuaren kontrako errekurtsorik jarri horretarako ezarritako epearen barruan, beraz, espedientea artxibatu egin zen.

7. Jasotako erantzuna aztertu ondoren, erakunde honek amaitutzat ematen du gai honen inguruan izan duen esku-hartzea eta honako ebazpena eman du ondoko gogoetak oinarri hartuta:



Gogoetak

1. Arartekoak ebazpen bat eman berri du gai honen inguruan, jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan sarrera ukatzeko eskubidea baliatzeari eta diskriminazioa debekatzeari buruzko araudia eta erreklamazioak izapidetzean erabilitako zigor-prozedurari eta berme-sistemari buruzko araudia eta horren aplikazioa berriz aztertzeke beharri buruzko **ekainaren 27ko 6/2013 Gomendio Orokorra**, hain zuzen.

Onartu zen egunean bertan Gasteizko Udalarari helarazi genion ebazpen hori oso egokia da hizpide dugun espediente honetan aplikatzeko, izan ere, erakunde honen ustetan, bere hainbat gogoetaren inguruan hobekuntzarako tarte garbia baitago administrazioaren jardueran.

2. Frogak balioesteko irizpideei dagokienean, erakunde hau ez dator bat ebazpen honetako Seigarren Aurrekarian jasotakoekin, hau da, salatutako dantzalekuak aurkeztutako alegazioak ontzat ematen dituen Dekretuaren oinarri direnekin. Izan ere, gure ustez, aipatutako Gomendio Orokorrean aditzera eman dugun arazo baten adibide garbia dira:

*“IV.1. Herri-administrazio eskudunek neurritz kanpoko onarpen-eskubidearen gainean tramitatu dituzten zigor-espedienteak **urriak dira eta froga-zailtasun garrantzitsua ageri dute**. Hala ere, lokal horietara sartu ezin diren eta bereizkeriaren biktima izana salatu duten pertsonen erreklamazioak geroz eta ugariagoak dira.*

*Bereizkeriaren bat jasan izana froga bidez egiaztatzea beti da zaila, eta, ondorioz, jarrera horietako asko zigorrik gabe geratu dira. Hori dela eta, berdintasunaren, giza eskubideen eta bereizkeriaren aurkako borrokaren arloan araudi jakin bat onartzen ari da eta **froga-kargaren banaketari buruzko arau orokorrak berrikusten dituen jurisprudenzia sortu da, besteak beste froga-karga erreklamaziogileari dagokiola ezarriz**. Bereizkeriaren aurkako eskubidetik froga-kargari buruzko arauak malgutzen dituzten modu batzuk proposatu dira, karga horren banaketa desberdina ezarriz. Hori horrela, salatutako bereizkeria-gertaerak egiaztatzeke betebeharra leuntzen da eta salatutako alderdiari eskatzen zaio bere jarduera **ez dela bereizkeriako arazoiretan batean oinarritu eta ez duela oinarritzko eskubiderik kaltetu egiaztatzeke**. Froga-kargari buruzko arauen malgutasun hori, oraingoz, neurri fiskalak, administrazio-neurriak eta lan-arlokoak arautzen dituen abenduaren 30eko 62/2003 Legeko 32 eta 40.1 artikuluetan babesten da.¹*

¹ Lege horrek barne-zuzenbidera bideratzen ditu 2000ko ekainaren 29ko Kontseiluaren 2000/43/CE Zuzentarauan (beren jatorrizko arraza edo etnia gorabehera pertsonen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoan) eta 2000ko azaroaren 27ko Kontseiluaren 2000/78/CE Zuzentarauan (enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoan) ezarritako aurreikuspenak. Bi zuzentarauetan “froga-kargari” buruzko xedapenak daude.



Auzitegi Konstituzionalak ere froga-printzipioa onartu du, aztarnak bezala, froga-karga lekualdatzeko ondoretarako². Hala, frogatzat joko dira bai funtsezko eskubidea kaltetzeko aukera argi eta garbi adierazten duten gertaerak, bai, lotura hain nabarmena ez izan arren eta errazago neutralizatu daitezkeen arren, funtsezko eskubide bat urratu delako hipotesia irekitzeko arrazoi nahikoa dutenak. Hala ere, ez da nahikoa izango funtsezko eskubide bat kaltetu izana edo bereizkeria jasan izana baieztatze hutsa eta baieztapen hori gertaera batzuetan islatzea. Auzitegi Konstituzionalak ez du onartzen froga-saiakera huts bat edo funtsezko eskubidea urratu ez dela esate hutsa aipatutako panorama neutralizatzeko; horren ordez, justifikazio objektibo eta arrazoizkoa dagoela eta funtsezko eskubide baten aurkako jarrerarik ez dagoela egiaztatu behar da. Erkidegoko jurisprudentziak, era berean, doktrina bat egin du, bereizkeriaren aurkako zaintzari dagokionez.

Horren harira, Arartekoaren ustez froga-karga banatzen duten neurriak aurreikusi beharko lirateke, erkidegoko nahiz barne-zuzenbideko bereizkeriaren aurkako araudiarekin eta jurisprudentziarekin bat eginez.”

3. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi botere publikoek mota honetako gertakarien aurrean erreakzionatzeko behar izaten duten denbora. Hizpide dugun kasuan espedientea ez zen hasi salaketa aurkeztu zenetik hiru hilabete baino gehiago igaro ziren arte. Atzerapen horren erantzulea Udala bera da, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak 2012ko uztailaren 2an bideratu baitzion hasiera batean Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara bidegabe bideratu zen erreklamazioa. Hasierako akats hori aipatu nahi dugu, izan ere, atzerapenean eragin nabarmenik izan ez bazuen ere, gure gomendio orokorrak aipatzen duen beste arazo bat irudikatzen baitu : gai honen inguruan aurkezten diren erreklamazioen lehen kudeaketaz arduratzen diren administrazio publikoetako zerbitzuetako langileek beti ez dute ongi ezagutzen zein den aplikatu beharreko araudia edo zein erakunderi dagokion hura ezagutzea.

Edonola ere, komenigarria litzateke prozeduraren hasiera azkarrago izatea, bi arrazoi direla medio:

- Lehenik eta behin, geroago aipatuko dugun nazioarteko araudiak behin eta berriro azpimarratzen duen legez, ezinbestekoa delako prozedura hasteak

Gainera, aurreko legegintzaldian gobernu sozialistak Tratu Berdintasunaren eta Bereizkeriarik Ezaren Legearen aurreproiektua onartu zuen (bertan behera geratu dena). Bertan, partikular, enpresa pribatu edo herri-administrazioek egindako bereizkeria-jarduerak zigortzeko neurriak sartzen ziren eta frogakargaren banaketaren harira aurreikuspenak ezartzen ziren, ustez bereizkeria eragin zuenak bere jardueraren "justifikazio objektibo eta arrazoizkoa" aurkez zezan.

² Besteak beste, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 21eko 87/1998 epaia, urtarrilaren 30eko 17/2003 epaia eta otsailaren 13ko 41/2006 epaia.



berak gizarteari honako mezua bidaliko badio: garrantzitsua da mota honetako gorabeheren ondorioz kaltetzen diren ondasun juridikoak aztertzea, bizikidetzan sustatu nahi bada.

- Eta bestaldean, zehapenaren prebentziozko alegiazkotasunaren mesedetan. Izan ere, nahitaez bermatzailea izan behar duen prozeduraren baitan, litekeena da zehatzeko aukera hori bertan behera geratzea izapideak egiterakoan sor daitezkeen atzerakuntzen ondorioz gertakariak frogatzea zaildu egiten baita. Aurreikusteko modukoa da halako kasuetan bertsioak kontrajarriak izango direla, eta halako kasuetan lekukoak testigantzak izaten dira frogarik erabakigarriena, bereziki indar publikoenak. Indar publikoek gertakariaren unean bertan edo hura jazo eta jarraian jarduten duten kasuetan, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez eman ditzakete alderdiek argudiatutakoa frogatutzat eman edo baztertu dezaketen zuzeneko edo zeharkako datuak. Horrenbestez, zenbat eta gehiago luzatu txostena prestatzeko lanetan, orduan eta zailagoa izango da garrantzitsuak diren datu guztiak bertan jasotzea eta, hala, gertatutakoa argitzeko duten gaitasuna ere murriztu egingo da. Halaxe gertatu zen, hain zuzen, hizpide dugun kasuan: Udalaren Dekretuak berak onartzen duen legez, Udalak eskatu ondoren Udaltzaingoak gertakaria jazo zenetik ia zazpi hilabetera emandako txosten horrek ez du ekarpen garrantzitsurik egiten kexagileari sartzen ez uzteko arazoia zein izan zen argitzeko orduan.

4. Azken puntu horri helduta, esan dezakegu espedientearen hasteko orduan izandako atzerapena kontuan hartu beharreko faktorea dela, baina erakunde honen ustez arazoaren muina ikerketa egiterako orduan izandako zorrotasun gabezia da.

Kontu horixe izan genuen hizpide Arartekoak *poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari* buruz urriaren 28an emandako [7/2011 Gomendio Orokorrean](#). VI 2. *Poliziaren lanaren garrantzia arrazagatiko delituen kontrako borrokan* atalean Arrazagatiko Bereizikeria Ezabatzeko Batzordeak (CERD) Espainiak aurkeztutako txostenen inguruan atera dituen ondorioak eta Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) egindako gomendioak aipatu genituen:

“Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) poliziaren indarrek delitu arrazisten aurkako borrokan eta gorabehera arrazisten gainbegiratzean duten eginkizuna nabarmendu du³, eta, horri dagokionez, modu sakonean ikertzeko eta ohiko delituen

³ Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) “delitu arrazistak” honela definitzen ditu: motibazio arrazistarekin gauzatutako ohiko delituak eta elementu arrazista eta delitua atxikita dauden kasuak (arrazagatiko gorrotoa bultzatzea edo arrazista den erakunde batean parte hartzea, besteak beste). “Istilu arrazista”, berriz, honela definitu da: biktimak edo beste pertsona batek arrazistatzen jotzen duen edozein istilu (11. gomendioa).



motibazio arrazista aintzat hartzeko eskatu die, bai eta batzuen zein besteen erregistroa eta gainbegiratzea egiteko sistemak ezartzeko ere⁴.

Horri dagokionez, adierazi du istilu arrazista bat gertatzen denean, proposatutako zentzu zabalean, polizia indarrek ikerketa zehatza egin behar dutela. Modu berean, azpimarratu du oso garrantzitsua dela polizia-agenteeek salaketa horien aurrean hartu behar dituzten neurrien inguruko jarraibide zehatzak jaso dezaten, hala nola: biktimarekiko sentsibiltatea, istilua gertatu den tokiko jarduerak froga posible guztiak biltze aldera, lekukoak topatzea eta galdeketa egitea eta susmagarria den pertsonaren bilaketa. Halaber, espezializatutako polizia unitateak sortzeko gomendioa egin du⁵.

Gure ustez, aipatutako gomendioak derrigorrezko erreferentzia bat dira polizia-kidegoek alor horretan burutzen dituzten jardueretan. Gure ikuspuntuari jarriki, atestatu en instrukzioak aztertzeari buruzko ikuspegi hori barne hartu beharko luke.”

Illo horri jarraiki, gure erakundeak ekainaren 27an emandako 6/2013 Gomendio Orokorrak ere azpimarratu egiten du zeinen garrantzitsua den publikoarentzat zabalik dagoen establezimendu pribatu batera diskriminazio-arrazoiengatik sartzen ez uztearen inguruko salaketaren bat dagoenean poliziak ikerketa sakona egitea.

“Berriz ere azpimarratu nahi dugu jarrera horrek pertsona oren duintasunerako eskubideari, berdintasunerako eskubideari eta bereizketarik edo tratu iraingarri edo umiliagarri ez jasateko eskubideari eragiten diola. Jarduera hauek administrazioko arau-haustea edo delitua izan daitezke, eta arreta eta esku-hartze gardena eskatzen dute, gauzatzen diren polizia-jardueren artean. Horren harira, tokiko eta autonomiako poliziak jarduera-protokoloak izan beharko lituzke, jendeari irekitako establezimendu pribatuetan sarrera eragotzi zaiela salatzen duten pertsonen erreklamazioetan, gertaera horien berri edukitzean eta gertaera hori zigorrik gabe ez geratzeko ikerketetan nola jokatu behar den jakiteko.

Hau da, herri-administrazio eskudun desberdinek eta poliziak ezinbesteko zeregina dute bai onarpen-baldintzak betetzen direla kontrolatzeko orduan, bai neurritz kanpoko jarrerak zaindu, ikuskatu eta jazartzeko orduan, edozein bereizkeria-mota desagertzen dela bermatzeko.”

⁴ 2010eko urteko txostenean, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) nabarmendu zuen delitu arrazisten inguruko datuak biltzeak duen garrantzia eta alor horretan dauden gabeziak agerian utzi zituen. Era berean, polizia indarren eskutik ikerketak burutzeko tresna gisa, profilak eratzearen legezko erabileren eta bazterkeriarik eza bermatzen duten arauak urratuz egindako erabileren artean bereizketa egiteko argitaratu duen gida aipatu du.

⁵ 11. gomendioa, 11. eta 12. idatz-zatiak.



Azaldutako irizpideak abiapuntu hartuta ezinezkoa zaigu hizpide dugun Dekretuaren edukiarekin bat etortzea, izan ere, haren arabera, agenteak gertakaria jazo ondoren bertaratu ziren eta horrenbestez alde baten eta bestearen bertsioa jasotzera mugatu behar izan zuten. Eta bien arteko kontraesana ikusita, egokia izango zitekeen indar jarduleek guztiz objektiboak diren honako bi puntuok egiaztatzea, gertatutakoa argitzeko orduan oso garrantzitsuak suerta baitaitezke:

- Alde batetik, kexagilea zer-nolako egoeran zegoen egiaztatzea. Egia da gertakaria ikusi ez zutenez udaltzainek ezin zutela zehaztu arrazakeria izan ote zen sartzen ez uzteko arrazoia edo, aitzitik, salatuek adierazi bezala, kexagilea oldarkor agertu eta alkoholaren edo/eta substantzia psikotropiekoen eraginpean egon bazen. Hala ere, kexagilea mozkor edo drogen eraginpean egon izana modu objektiboan egiaztatzeko moduko kontua izango zitekeen. Izan ere, atezainaren hitzetan horren agerikoa bazen (hainbeste non, ustez, horrexegatik debekatu zioten sartzea) beste guztientzat ere hala izan beharko zukeen, eta are gehiago gertakaria jazo eta gutxira dantzalekura bertaratu ziren udaltzainentzako, halako kontuetan eskarmentu berezia baitute euren lanari dagozkion zereginei esker. Horrenbestez, bidezkoa litzateke txostenean edo oharretan puntu horren inguruko balorazioen bat jaso izana.
- Bestalde, sartzen ez uzteko arrazoia arrazakeria izan zela ukatzeko xedez, dantzalekuak hasiera-hasieratik argudiatu zuen bazeudela bezero beltzak ere. Horren aurrean egin beharreko gutxieneko izapidea hori hala bada egiaztatzea izango zitekeen.

Salatzaileak berak eskatu zuen polizia bertaratzeko, eta bera izan da agenteen txostena edo oharra eskatu dituen frogaren gisa. Gertakaria jazo zenetik agenteak bertaratu zirenera igarotako tartea txikia izan zen, eta han izan ziren bitartean alde bien testigantzak jasotzeaz gain erreklamazio-orrria betetzen lagundu zioten salatzaileari, beraz, pentsatzekoa da aipatu berri ditugun egoeren aurrean nolabaiteko balorazioa egiteko moduan zirela. Horrenbestez, harrigarriena ez da puntu horiek txostenean jaso ez izana (hura eskatu eta egin arte igarotako denboraren ondorioz izan daiteke hori), prozedura izapidetzen ari ziren bitartean informazio hori gogoratzen zutenarekin osatzeko eskatu ez izana baizik.

5. Azkenik, gogorarazi behar dugu euskal administrazio guztiek Arartekoak eskatzen dizkien *“datu, dokumentu, txosten eta argibide guztiak lehentasunez eta lehenbailehen aurkezteko”* obligazioa dutela erakunde hau sortzen eta arautzen duen 3/85 Legearen 23. artikuluari jarraiki. Hizpide dugun kasuan Gasteizko Udalak ez du obligazio hori bete. Gainera, espedientearen ebazpen-dekretua 2013ko martxoaren 1ean eman bazen ere, erakundeari ez zitzaion



2013ko irailaren 16ra arte jakinarazi, erakundeak berak berriro eskatu zuenean, hain zuzen. Gogorazi behar dugu urtarrilaren 11n gure laguntza-eskakizunari erantzuterakoan Udalak jakinarazi zigula Dekretua ematerakoan jakinaraziko zigula haren edukia, baina esan dugun legez, Arartekoak gogorazi zion arte ez zuen halakorik egin.

Atzerapen hori espedientea hasteko izandako atzerapenari gehitu izanak zaildu egiten du Arartekoak oinarrizko eskubideak zaintzeko eskuordetuta dituen egitekoak betetzeko lana. Horrenbestez, komenigarria litzateke aurrerantzean halako kasuen edo bestelako gaien inguruan Arartekoak Gasteizko Udalari egiten dizkion laguntza-eskabideen aurrean erakunde honek adierazitako epeen barruan erantzutea.

Ondorioak

Espediente honen instrukzioan zehar, Gasteizko Udalak ez du salatutako ekintza behar beste ikertu, eta bere ebazpenak ez ditu kontuan hartu diskriminazioaren kontrako gaietan frogaren zama banatzeko bete beharreko arauak, hau da, salatutako alderdiak jarduera diskriminazioak eragindakoa izan ez dela edo oinarrizko eskubiderik urratu ez duela egiaztatu behar duela.

Sarrera-eskubidea gehiegikeriaz eta diskriminazioz erabiltzeari buruzko erreklamazioak izapidetu eta ebazterakoan Gasteizko Udalak **Arartekoaren ekainaren 27ko 6/2013 Gomendio Orokorren** edukia hartu beharko luke kontuan. Gomendio horren arabera, **berrikusi egin beharko litzateke publikoarentzako zabalik dauden establezimendu pribatuetara sartzeko orduan aplikatzen den harrera-eskubidea eta diskriminazio debekua arautzen dituen araudia, eta baita zehapen-prozeduraren eta erreklamazioak izapidetzeko berme-sistemaren arauketa eta aplikazioa ere.**

